ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2022ko azaroaren 23a, asteazkena • 134 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA-CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

**Amurrio eta Aiarako udalerrietan 2022ko ekitaldiko hirugarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tasei dagokien kontribuzio-errolda**

Amurrio eta Aiarako udalerrietan 2022ko ekitaldiko hirugarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tasei dagokien errolda prestatuta, publikoarentzat ikusgai jartzen da hamabost egun balioduneko epean, BOTHAn iragarpen hau publikatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek komenigarriak kontsideratzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik egongo ez balitz, errolda behin betiko onartutzat emango litzateke.

Edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tasen kobratze-epeak:

A) Epe boluntarioa: 2022ko abenduaren 12tik 2023ko otsailaren 13ra, biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza-erakundeetan kargatuko dira 2022ko abenduaren 12an.

B) Kobratzeko epe exekutiboa: 2023ko otsailaren 14tik aurrera hasiko da epe exekutiboa, errekargu exekutiboak sortuz, premia murriztu eta premia arruntekoak, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Ribabellosa, 2022ko azaroaren 14a

*Presidentea*
*JOSEAN GALERA CARRILLO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.11.23 06:24:39 Z